

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2017ko abenduaren 22a, 548 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

HITZORDU UGARI EGUBERRIETAN

Aitor Mendiluze txapeldun-orde, ohiko duen estilo finari eutsiz

Aurreko egunetan agindua zuen bere estiloari eutsiko ziola, eta Bertsolari Txapelketako finalean halaxe egin zuen. Erregularitasun bikaina erakutsi zuen.

Ofizio ikaragarria du, neurritan eta ideietan zorrozatasun handia erabiltzen du. Aiurri eskaintako elkarrizketan adierazi zuenez, andoainarra BE-Ceko finalean bertsotan gozatzeko gogotsu zegoen. Bere hitza zintzo bete zuen. Egun osoan, baina bereziki arratsaldeko saioan, bere bertsolari ibilbideko unerik onenean dabilela erakutsi zuen, txapela eskuratzeko zorian egonik. Merezimendu osoz iritsi zen Maialen Lujanbiorekin batera, azken buruz burukora.

Azken saio horretan, bederatzikoa osatzeko orduan, hitz batera makurtu behar izan zuten Lujanbiok eta Mendiluzek. Hitza "izerdia" zen. Eta kartzelako lanean, berriz, honako gairi heldu behar izan zioten: "Bada orduerdi auto bera atzetik duzula".

AGURREKO BERTSOA

Behin saillkapena jakinarazi ostean, gertukoak gogoan hartu zituen agurrean: etxeokak, Jon eta Arkaitz bi semeak, 80ko hamarkadan sortu zen Hernaniko bertso eskolako sustatzaileak



Aitor Mendiluze 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapeldun-orde da.

le nagusi **Juanjo Uria** eta bertsolaritzaren unibertsoa egunez egun hauspotzen duten hainbat pertsona gehiago:

Etxekoei ta Jon eta Arkaitz zuei denen izenean ta bide hontan zoazten denoi eskutik aldamenean bihar etziko bertsolariei segi hazten orainean ta zuri Juanjo zurekin hasi baitzen iraganean galtza motxak neuzkanean (bis) bihar goizean esnatu eta aparra pasa denean berriz sinisten segi dezagun eguneroko lanean.

Andoaindarrak, finalaren osteko balorazioan, esker ona adierazi zuen: "Oso mimatua sentitu naiz taldean, jendearen aldetik, antolakuntzatik...".

BIZITZA, BERTSOARI ESKAINIA

Mendiluzek Andoaingo ikastolan jaso zuen bertsoari buruzko lehenbiziko azalpena; hitzekin eta ideiekin jolasteko ariketa harekin txoratuta, **Axun Gonzalez** amari behin eta berriro adierazten zion bertsoan murgiltzeko gogoia. Amak eskuan hartuta, Hernaniko bertso eskolara busean astean behin eramaten zuen; eta Aitorrek **Juanjo Uria** irakaslearen irakaspenak arretaz jarraitzen zituen. Transmisioari egin nahi izan dio keinu Aitorrek. Izan ere, **Justiniano Mendiluze** zenak egin zuen bertsotan, bere seme **Aitor Mendiluzek** egiten du bertsotan, eta nola egin ere, eta Arkaitz semeak ere bideari ekin berri dio. Hariak ez du etenik.

KARTZELAKO GAIA:

Hitza: Izerdia

Izerdia ze izerdi? askoren galdera lehenego begiratu besape aldera ni konturatu gabe humeldu ote da horko batzuenak bai, dexente gainera baino hemen norbera ta ze egoera kezka da sobera ta izerditzan gara baino denonak ez du balio bera

Bada orduerdi auto bera atzetik duzula:

Etxetik ezin lasai atera ezin lasai joan lagun artera ez lanera ta ez umeekin arratsaldean parkera (bis) beti gertu nor ote da nor da gurekin batera hara berriz auto bera noiznahi gelditu noiznahi miatu maletaro barrenera bat ohitu ere egin daiteke susmagarri izatera.

Garai batean eta orain ordea hortatik lasai baina besteek jarraitzen dute erbia noiz altxako zai lanak lan, garaiak garai pakeak bidean darrai ta ez dira ulertzeko gai herrigintzatik eraikitze ahaleginean nabil bai agian hori da arazoa ez dute eraikitzerik nahi. Zenbat iritzi ta zenbat proba ta zenbat gezur batzuk ahora baina aldatzen hasteko unea ere ez al da izango ba hara ona bera gora zer zatoz nere ondora ez galdu zure denbora edo bai galdu zu hor ikusiz barre egingo det gustora ni ez baldin banaiz mugitzen dena beste norbait izango da.

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera



Olentzero eta Mari Domingi eskualdera datoz, asteburu honetan. Urnietatik barrena larunbat arratsaldean igaroko dira, Egape dantza taldeko ki-deek lagunduta. Arratsaldeko 18:00ak aldera kalez kale ibiliko dira, kalejiran. Igande arratsaldean, berriz, Andoaingo herrigunea zeharkatuko dute.

Egun magikoak datoz, txikiak eta eguberrizaleentzat.

[2-5. ORRIALDEAK]



Organo kontzertua ostiral honetan

[9. ORRIALDEA]

Urteko azken Aiurri astekaria

Bien bitartean, Andoaingo eta Urnietako albistekak aiurri.eus webgunean.

Olazabalen bidearen jarraitzaileak

Andoaingo **Osasun Pastoral** taldeak jaso zuen **Jose Mari Olazabalen Bidea** saria abenduaren 14an Basteron, **Caritas** sek urtero antolatuta ohi duen ekitaldian. Ez ziren ikusleek txalo artean hartu zituzten herrikide bakarrak izan. Antolatzaitzaileek Andoain iraganean nabarmendu diren pertsona edo elkarteei pergamino berezia banatzeko ohitura baitute,



eta oraingoan 80ko hamarkadan Sorabillako erretore etxean harrera-etxea sortu zutenak gogoan hartu nahi izan zituzten. Hots, **Luis Eskudero**, **Lurdes Imaz**, **Mikel Goenaga** apaiza eta **Rita Diaz**. Hilak dira azken biak, eta euren senideak igo ziren oholtzara. Hunkigarria izan zen, eta denek ere ondo merezitako aipamena jaso zuten.

[10. ORRIALDEA]



Une magikoak iristear dira urnietarrena

Santomas ospakizunarekin, Eguberrietako ospakizunei indartsu ekingo diote urnietarrek. Arratsaldean hasita, bertako sagardoaz gozatzeko aukera izango da. Giro ederra sortu ohi da, gainera, Kontze-

jupean. Gazteei begira, Gaztelekuan egitarau zabala antolatu dute. Eta kirol jardueri dagokionez, Zanpatuz taldeak gaueko mendi mar-txa antolatu du. Poxta Zahar taldeak, aldiz, San Silbestre lasterketa.

ABENDUAK 21, OSTEGUNA

16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.

17:00-19:30 Gaztelekua: talo eta txistor tailerra.

17:30 Musika eskolako Gabonetako kontzertuak, Saroben.

17:30 "San Tomas eguna, neguko lurruna", Inñistorrak antolatua. Jaiaren xehetasun guztiak astekariko azken orrialdean.

19:30 Gabonetako lehiaketan sari-banaketa, Saroben.

ABENDUAK 22, OSTIRALA

16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.

20:00 Gabonetako abesbatzaren entse-gua, Lekaion.

ABENDUAK 23, LARUNBATA

15:30 Mus azkarra txapelketa Santa Krutz elkartean. 25 euro bikote bakoitzeko. Txapelketa 16:00etan abiatuko da. Sariak lehen lau sailkatuentzat:

- 2 txapela + 2 arkume + 2 txanpain botila.
- Arkumea + 2 txanpain botila.
- 2 paletilla + 2 txanpain botila.
- Baserriko 2 oilasko + 2 txanpain botila.

17:00 Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak: "Din, Dan, Don", Saroben. Sarrera: 3 euro.

18:00 "Olentzero eta Mari Domingi badatoz...". Berrasoeta parketik San Juan plazara.

ABENDUAK 24, IGANDEA

Gabon-kantak herri eta baserrietan.

12:00 Gabon-kantak herri-gunean Olen-tzerorekin.

16:00 Gabon abesbatzaren kalejira, Lekaiotik.

ABENDUAK 26, ASTEARTEA

11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.

16:00-20:00 Gaztelekua: kirola eguna kiroldegian.

16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.

17:30-19:00 Sormen topagunea, Lekaion.

19:00 "Ez hemengo-Ez hango" antzerkia, Saroben. Orratz antzerki taldea. Sarrera: doan.

ABENDUAK 27, ASTEAZKENA

11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.

15:30-20:00 Gaztelekua: Zinemaz gozatzeko irteera Errenteria aldera.

16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.

17:30-19:00

Sormen topagunea, Lekaion.

19:00 Gospela elizan: Moon Fields.

ABENDUAK 28, OSTEGUNA

11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.

16:00-20:00 Bingoa Gaztelekuan.

16:30-19:30 Ikasleen erakusketa Lekaion.

17:30-19:00 Sormen topagunea, Lekaion.

19:30 Illumbe akordeoi orkestraren emanaldia elizan. Sarrera: doan.

ABENDUAK 29, OSTIRAL

10:00-14:00 Gaztelekua: patata-tortila lehiaketa.

11:00-13:00 Sormen txokoa, Lekaion.



Zorionak eta
Urte Berri On!

Gabonetan maiz egiten dira
Bazhari-afari onak
Bertso eder hau egin dugu guk
Esateko Zorionak
Aurtengo hauek ta datozenak
Izan datozen kristonak
Izoba-arabak, anai-arrenak
Lehengusu, aiton-amonak
Ondo pasatu Gabonak

DBH 1. eta 2. mailako
Bertso-Eskolako ikasleak



2017-18



Aukera zabala Gaztelekuan

Kirola, kultura, sukaldaritza edota osasunarekin lotutako jarduera ugari antolatu dituzte Gaztelekuan, abenduaren 20tik urtarrilaren 2ra bitartean. Herrian bertan nahiz herritik kanpo garatuko dira ekintzak. **Beñat Alonso** eta **Garazi Jauregi** Gaztelekuko hezitzaileek azaldu dutenez, "Gipuzkoako beste herri batzuetan ere antolatu ditugu ekintzak, adibidez, Errenteriarra

zinemara goaz eta Donostiara Txuri Urdin izotz jauregira". Bestalde, bertan behera geratu da Parkour praktikatzerara joateko irteera Donostiako Ilargi Berdea gimnasia, eta horren ordez, Gaztelekuan bingoan jolasten geratuko dira. Sariak ere egongo dira irabazleentzat, beti ere herriko merkataritza sustatzea helburu duten produktuak eskainiko zaizkielarik.

- 16:30-19:30** Ikasleen erakusketa Lekaion.
- 17:30-19:00** Sormen topagunea, Leikaion.
- 18:30** Gaueko mendi martxaren irteera San Juan plazatik, Zanpatuzen eskutik.
- 19:00** Gaueko mendi martxaren jarraipena Besabitik.
- 20:00** "Aukeran 20 urte" dantza konpainiaren urteurreneko emanaldia, Saroben. Sarrera: 5 euro.

ABENDUAK 30, LARUNBATA
17:00 Zinema Saroben: Monster Trucks.

URTARRILAK 2, ASTEARTEA
09:30-14:00 Gaztelekua: Adarrara irteera.
17:30 Magia. "Ilusioaren indarra" Hodei magoa, Saroben. Sarrera: 3 euro.

URTARRILAK 3, ASTEAZKENA
10:00-14:00 Gaztelekua: eskulanak.
16:30-18:30 Jolasak kiroldegian.

URTARRILAK 4, OSTEGUNA
 Goizez Gaztelekua: Txuri-urdinera.
11:00-13:00 / 16:30-19:00 Puzgarriak kiroldegian.

URTARRILAK 5, OSTIRALA
16:00-17:30 Errege Magoen harrera San Migel elizan, argazkiak atera eta gutunak jasotzeko.

18:00 Errege Magoen desfilea: Lobera baserritik abiatuta. Harrera Erratzuko zubian.

19:00 Opari banaketa 0 eta 6 urte arteko haur guztiei, Kontzejupean.

URTARRILAK 7, IGANDEA
16:00-18:30 Zinema Saroben: Batman Lego.

Aiurri.eus gunea

Eguberrietan astekaririk ez da argitaratuko. Aiurriko lantaldeak egunotako albisteak webgunearen bitartez zabalduko ditu. Eguberrietako hitzor-

duen argazkiak eta bideoak, edota aktualitateari loturiko edukiak aiurri.eus gunean eta sare sozialen bitartez jakinaraziko dira.

Urtea lasterka amaitzeko aukera

Poxta Zahar elkartea San Silbestre lasterketa antolatzeko lanetan ari da, egun hauetan. Ibilbidean ez da aldaketarik izango, iazko berari eutsiko diote. Parte hartzea doakoa izango da, baina antolatzailerik aldeztu aurretik izena emateko gomendioa luzatu dute. Xauxar tabernan zerrenda ipiniko dute.

Egunean bertan, arratsaldeko 15:00etan hasita, San Juan plazan bertan izena emateko aukera izango da.

ABENDUAK 31, IGANDEA
15:00 Izen-ematea.
16:00 Lasterketa txikia. Ondoren, helduen lasterketa.

Zorionak eta Urteberrion!
 ...eta muqi, muqi...
 Olentzero datorrela!

www.mueblesiturbe.com

Igarategi Industrialdea 70. Urnieta
 Bezeroen arreta-telefonoak: 943 552 750 (Iturbe) | 943 552 754 (Nei)



Nei
 Muebles Kit Altzariak

Iturbe
 SUKALDEA & ETXEA (1944az geroztik)



Olentzero eta Mari Domingi denen ahotan dira egunotan

Gau magikoa izango da igande gauekoa, Olentzero eta Mari Domingi gure herrietara hurbilduko baitira. Andoainen, usadiozko ekitaldiekin batera, hitzordu interesgarri ugari iragarri da. Gazte Astea

edota Ikuszirkus zikloa, San Silbestre laskerketa eta Eguberrietako kirol hitzordu bereziak... Aisialdia osatzeko hitzorduz beterik dator agenda.

ABENDUAK 22, OSTIRALA

18:00 Andoaingo Udal musika eskolako tailerreko ikasleen Gabonetako kontzertua Basteron.

22:00 "La llamada" filma Basteron.

ABENDUAK 23, LARUNBATA

10:00 Hazkuntza eta hezkuntza azokaren irekiera, Ametsondoa elkartearen eskutik. Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).

11:00-11:30 Haurrentzako yoga Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).

11:30-12:00 Aurpegi margoketa Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).

12:00-12:30 Kirol ekintza ludikoak 3-10 urteko haurrentzat. Sportmadness Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).

12:30-13:00 Eskulanak. Super Hren alde, Zumea plazan. (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).

12:30 Soinuak musika eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua Basteron.

13:30 Tonbola Zumea plazan (Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean).

17:30 Olentzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak Etxeberrieta plazan, auzoko jai batzordeak antolatua.

19:30, 22:00 "La llamada" filma Basteron.

ABENDUAK 24, IGANDEA

17:30 Olentzero eta Mari Domingi harrera, Aita Larramendi Ikastolak antolatua. Goikoplazan lehen hitzordua.

18:30 Olentzero eta Mari Domingi Espigoian.

ABENDUAK 25, ASTELEHENA

19:30 "La llamada" filma Basteron.

ABENDUAK 26, ASTEARTEA

09:30 Gazte Astea: Zesta punta Arraten.

11:00 Gazte Astea: Eskupilota Arraten.

17:00 Gazte Astea: Antzerki tailerra Gazte Lokalean.

20:00 Ikuszirkus Basteron: "Haiek naiz, soy ellas", Rojo telón konpainia (Euskal Herria).

ABENDUAK 27, ASTEAZKENA

11:00 Gazte Astea: Krossa Urigainen.

16:30 Gazte Astea: Futbolina Gazte Lokalean.

18:00 Gazte Astea: Ping-ponga Gazte Lokalean.

20:00 Ikuszirkus Basteron: "Collage", Bot project konpainia (Katalunia).



Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Ondo pasa Gabonetan!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

KEINU

BASERBITAR, JANTZIETAN AUKERA ZABALA ETA PERTSONALIZATUA

Kale Nagusia, 12 - ANDOAIN
943 02 96 76 - 637 28 32 24
keinu.andoain
www.txapelaketabordatuak.eus

Zatoz gure dendara!

Banderak
Txapelak
Txilabak
Abenduan
larunbat
atsaldetan
irekita

ABENDUAK 28, OSTEGUNA

11:00 Gazte Astea: Gazte erronka Goikoplazan.
11:00-14:00 Haur Parkea Allurralden.
16:00-20:00 Haur Parkea Allurralden.
20:00 Ikuszirkus Basteron: "Oopart", Trasperté circo teatro (Andaluzia) Basteron.

ABENDUAK 29, OSTIRALA

11:00 Gazte Astea: Zumba Gazte Lokalean.
11:00-14:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralden.
17:00 Gazte Astea: Urte bukaerako kontzertua Gazte Lokalean.
20:00 Ikuszirkus Basteron: "Travelling circus", Cie horses pistes (Frantzia).

ABENDUAK 30, LARUNBATA

11:30-13:30 Gaztaina erreak Juanita Alkain plazatxoan, Urkik antolatuta.
18:00-21:00 Bertso poteoa eta trikitixa.
20:00 Ikuszirkus Basteron: "Shock'em all", La Sbrindola (Italia).

ABENDUAK 31, IGANDEA

11:00-13:00 Kale animazioa txistulariekin.
11:30 San Silvestre lasterketa Zumea plazan.
12:00-13:30 Pajeen irteera eskutitzak jasotzeko. Ibilbidea: Goikoplaza - Bastero-Kale Nagusia-Zumea plaza-Larramendi kalea. La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua.
00:45-04:00 Urtezar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

URTARRILAK 5, OSTIRALA

18:30 Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua. Zumea plaza.
19:30 Iritsiera Goikoplazara.

Gipuzkoan saritua



Joan zen igandean **Iker Gomez Garcia** andoaindarrak Gipuzkoa mailako argazkilaritza saria jaso zuen, etxe erre-

gionalek antolatzen duten lehiaketan. "Kanpaidorretik" izeneko argazkiarekin eskuratu zuen saria.

Salda Adarramendin

Alejandro Gonzalez, senideekin batera, urte luzez Adarramendin salda emateaz arduratzen zen mendizalea hil eta gero, urtarrilaren 1ean salda banatzeko tradizioari utsiko ote zi-

tzaion zalantza zegoen. Bada, Euskaldunako zuzendaritza talde berriak bere gain hartu du ardura hori. Aurtengoan ere, beraz, salda beroa eskainiko dute. Gonzalezen ohorez.

Gazte Astea

Abenduaren 26tik 29ra bitarte Gazte Astea ospatuko dute, Gazte Lokalean eta beste zenbait tokitan. Mota ezberdinetako ekintzak antolatu dituzte lau egun horietarako. **Bakartxo Portuburu** Andoaingo Gazte Lokaleko kideak azaldu duenez, "futbolina edota ping-pong moduko jolasak dira arra-

kastatsuenak, baita antzerki tailerra edota zumba ere". Orokorrean, parte hartzea altua dela adierazi du Portuburu. Iaz antolatu zen aurreneko gazte erronka, 13-15 urte bitartekoentzat. Aurtengoan, berriz, adin tarteko zabalako gazteei zuzenduta dago parte hartzea altuagoa izan dadin ekintza horretan. Aste osoan zehar argazki lehiaketa egingo da, eta ondoren erakusketan jarriko dituzte ikusgai.

Suzirien arriskuez ohartarazteko bandoa

Eguberri eta Urteberriko ospakizunetan bota ohi diren suziriren arriskuez ohartarazi du Andoaingo Udalak, bando bidez: "Herritarrak arazoaz jabetzeko, eta sor daitezkeen arrisku egoerak ekiditeko xedez, gogorarazten zaizue, artifizio piroteknikoaren erabilera okerrak norberaren osasunean ondorioak izan ditzakeela eta,

baita ere, beste pertsonengan eta haien ondasunetan ere, maiz suteak edo leherketak eragiten baitituzte".

Ospakizun horiek pertsonen ondasunen eta animalien segurtasunarekin bateratu beharra dagoela gaineratu du Udalak, Zarata eta Dardaren aurkako Udal Ordenantzak agintzen duela aipatuz.



Eguberri eta urte berri on!

Itasa
 Sorabilla auzoa, 218
 20140 Andoain
 Tel.: +34 943 30 40 70
 Faxa: +34 943 59 41 31
 info@itasa.es


Ondo pasa festak!



Opariak egiteko hainbat aukera, etxetik gertu

Irudiotan ikus daitezkeen produktuak Andoaingo dendetan eros daitezke. Ez da, beraz, opari ederren bila oso urruti joan beharrik. Hona, azken orduan dabiltzanentzat, opariak erosteko aukera ez-

berdinak. Lagin bat besterik ez dira, Andoaingo merkatalguneetan denetik erosteko aukera baitago. Kalitatezko produktuak eta, gainera, gertu.



Etxerako apaingarriak, lagun ezezaguna edota betiko oparrietatik aldentzeko aproposak dira.

- 19 euro** Lanpasa (unitatea).
- 20 euro** Atea eusteko arditxoa.
- 67 euro** Eguzkiloa.
- 105 euro** Mahai txikia.

Edergai dendan salgai.
Goikoplaza 2, behea.



- 44,99 euro** Motxila.
- 99,19 euro** Maleta handia.
- 99,19 euro** Maleta txikia.

- 54,99 euro** Kirol poltsa.
- 45,99 euro** Kirol poltsa txikia.

- 39,99 euro** Kirola egiteko Roxy galtzak.
- 55,95 euro** Roxy sudadera.
- 59,99 euro** Astore zapatillak.



- Kirola egiteko edota kalerako jantzi aproposak dira, negukoak.
- 119,95 euro** CMP Thinsulat isolant berokia.
- 41,95 euro** Astore kamiseta.
- 28,95 euro** Buff polartec kapela.
- 26,95 euro** Buff polartec lepokoa.

Ormendi dendan salgai.
Kaleberria, 2.

arruti

Zumea 18
Andoain
943 59 37 77

Eguberri eta Urte berri on!

LEIZARAN INSTITUTUA **DOAKO IKASTAROA**
Lehentasuna, langabeentzat

IKASTAROA

Mendeko pertsoneri gizarte-erakundeetan arreta SOZIOSANITARIOA ematea
(LANBIDE SSCS0208) Ikastaroa gaztelaniaz da

Profesionaltasun-ziurtagiria Lanbidek behin-betiko ebarpena argitaratzearen zain.

INFORMAZIOA:
943 300 078
www.leizaran.net
zikita.gipuzkoa@gmail.com
Plazaola kalera, 23
20140 Andoain

Lanbide
Kultur Erakunde Erakunde

ikasLAN

EUROPEA
Erakunde Erakunde



17,50 euro.



19,95 euro.

Larruz egindako diru-zorroa, poltsoak, belarritakoak..., aukera zabala!
48 euro Diru-zorroa.
27 euro Paca Peca larruzko belarritakoak.
73 euro Slang motxila.
43 Larruzko motxila.



Li dendan salgai.
 Kale Nagusia, 6.



Bogan dauden jostailuak, salmenta onak izaten ari diren liburuak..., lagun ezezagunerako aproposak.

Ernaitza dendan salgai.
 Zumea kalea, 9.

12 euro



22 euro

Eguberrietarako jantziak, bertan egindakoak. Baita txapelak eta beste hainbat osagai ere.

75 euro Baserritar gona, pertsonalizatua.
60 euro Txapelak.
30 euro Tokilla.
18 euro Poltsatsoa.
12 euro Burukoa.



Keinu dendan salgai.
 Kale Nagusia, 12.



20 euro

Talleres KARRIKA, C.B

- AUTO KONPONKETA
- MEKANIKA
- ELEKTRIZITATEA
- AIRE EGOKITUA

BILGUNE BERDEA

Ubilluts auzunea. 56.
 Pol. 10. zenb.
 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 300 214
 Faxa: 943 590 956

Bitxikeriak - Arropa
 Nagusia 6
 ANDOAIN
 943 59 12 24

Gabon zoriontsuak!



Musika eta ahots doinuak Eguberriaren atarian

Andoaingo Udal musika eskolako hiru abesbatzek Gabonetako kontzertu berezia eskaini zuten, joan zen larunbatean Berrozpeko kaperan. Katrin Iturralde zuzendu zituen hiru taldeak, eta Miryam

Ulanga aritu zen teklatuetan, laguntzaile. Berrozpe lepo bete zuten parte hartu zuten lagunak eta musikazaleak. Egun seinatuak gerturatu ahala, Eguberrietako giroa berotuz doa.



Helduen abesbatza Berrozpeko kaperan, igande eguerdiko emanaldian.



Abesbatza txikiak honako kantutegia eskaini zuten: *Kanbon palangak pagoz, Samba lele, Gabon Izar eder eta Scoo Be Doo song*. **Abesbatza gazteak**, berriz, *Gau ilunak ez badu, Lau teilatu, Ho-*

die! Alleluia!, All i want for Christmas Is you eta Non degu, non? Eta azkenik, **helduen abesbatza**: *Thula baba, Calypso Gloria, Elurra mara mara eta Festejo de Navidad*.



Gazteen abesbatzak *Irati Morenoren* laguntza izan zuen *Gau ilunak ez badu* abestian. Helduenen emankizunean, berriz, *Xabier Sanchez* bakarlari gisa aritu zen.

Kontzertuei amaiera emateko, hiru abesbatzek elkarrekin bi abesti eskaini zituzten: *Haurtxo maite eta Haur eder baten bila*.

[Argazkiak, bideoak: www.aiurri.eus]



Organo kontzertua ostiral honetan

Paregabea izateko osagaiak ez dira faltako, ostiral honetan 19:30etik aurrera Andoaingo San Martin elizan antolatutako kontzertuan: mundu mailan ospea daukaten konposatzaileak; haien zenbait obra; kalitate handiko organoa eta, azkenik, aurreko hiru elementu horiek ederki asko gobernatzen dakien organo-jotzailea. **Joxean Pascual** Andoainen, batez ere, **Alberto Agirre abesbatzako** zuzendari gisa da ezaguna.

Ostiralean organo kontzertua eskainiko du San Martin elizan. Bach, Bennett, Guridi, Aita Donostia..., konposatzaile handien piezak interpretatuko ditu. Ordubete iraungo duen emanaldian XVIII-XX. mende bitarte sortutako errepertorioa eskainiko du. Emanaldiaren amaiera aldera, euskal melodiak tartea eskainiko die: Guridiren eta Aita Donostiaren obrak eta baita beste pieza herriko batzuk ere. "Gabonetako giroa eta usaina zabaldu nahi nuke elizan", adierazi du kontzertuko protagonistak. Hautatu dituen konposatzaile ospetsuen lanak "ezin egokiagoak dira organo horrekin interpretatzeko".

Estatu osoan ez dago, antza denez, Gipuzkoan dagoen horrenbesteko organo kontzentrazioarik. "Andoaingoa izugarri ona da, erromantikoa deitzen dena, baina nola pittin bat txikiagoa den, bada ez diogu behar duen balioa ematen".

Ezin asmatu zenbat entzule hurbildu daitekeen ostiraleko kontzertura. "Organoaren hotsa betidanik izan da gutxi batzuren googoko afizioa. Eta gaur egungo gazte jendea apenas gerturatzeko den organo kontzertu batera, horixe da errealitatea. Askok organoa elizarekin eta erlijioarekin identifikatzen dute, eta atzera egiten die horrek. Organo batekin gauza miragarriak egin daitezke, musika kultura daukan edozein pertsonaren entzumena goxatzeko moduan".

Baldin eta entzule askorik gerturatzeko ez bada San Martin elizara, Pascualek korora igotzeko gonbidatuko dituztenak. "Kontzertua gertu-gertutik entzun eta ikusi ahal izango dute. Eta, gainera, abesti bakoitzaren inguruko azalpenak emango dizkiet".

KANTUTEGIA:

- Nun komm, der Heiden Heiland BWV 659, Zatoz jentileen salbatzaile (J.S. Bach).



Joxean Pascual Tolosako Santa Maria Kaperako organista titularra da, eta Alberto Agirre abesbatzako zuzendaria.

LEHEN SARIA KLARINETE MARATOIAN



Leire Barquero, Maddi Elizasu, Xabier Ucin eta Aizpea Oriak osatutako laukoteak lehen saria eskuratu zuen Zumaia komentuan ospatu zen XVI. klarinete maratoian, joan zen larunbatean. Laukoteen-kontzertuko atalean, hain zuzen. Laugarren urtez irabazi dute lehen saria. Argazkian, Mikel Emezbabal irakaslearekin ageri dira.

- Toccata eta fuga re minorrean BWV 565 (J.S. Bach).
- Trumpet Voluntary (J. Bennett).
- Hymne au Soleil (Pièces de Fantaisie op.53) (L. Vierne).
- Incantation pour un Jour Saint (J. Langlais).
- Glosa (Puer natus est) (J. Guridi).
- Berceuse de L'Enfant Jésus (A. Donostia).
- Eguberri kantak (Herrikoiak).

IBILBIDE OPAROKO MUSIKARIA

Musikari gisa ibilbide oparoa dauka Joxean Pascual donostiarrak. Makina bat kontzertu eskaini izan du maila handiko eliz-organoeekin. Konta ezin ahala musika banda eta abesbatza zuzendu izan du. Besteak beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Espainiako Bilbao Orkestra Sinfonikoa.

Egun, Bergarako musika eskolako organo irakaslea izateaz gain, Tolosako Santa Maria Kaperako organista titularra da eta Alberto Agirre Abesbatzako zuzendaria.

AZKAIN
MOTOAK

- Motorrerako behar duzun guztia
- Motore azterketak
- Mota guztietako Scooterrak
- Salmenta eta konponketak
- Quad ATV modelo guztiak

PREZIO INTERESGARRIAK

Ubilluts auzoa, Pol. 56-N°12 - 20140 Andoain - Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456

www.azkainmoto.com / azkain@azkainmoto.com

urpa
BUS

Aurrekontua eskatu konpromisorik gabe

943 305 050

- 30 urtetik gorako esperientzia.
- Taldeentzako bidaiak, ezkontzak, eta abar.
- Flota modernoa 17 eta 60 eserleku bitarteko autobusekin.
- Ezinduentzako autobusak eta literadunak bidaietarako.



Joxe Mari Olazabalen Bidea sari-banaketa ekitaldia

Andoingo Osasun Pastoraltza taldeak jaso zuen Jose Mari Olazabalen Bidea saria abenduaren 14an Basteron, Caritasek urtero antolatu ohi duen ekitaldian. Adin nagusiko aiton-amonei eskaintzen

dieten laguntzagatik nabarmendu dira Osasun Pastoraltzako boluntarioak. Ekitaldian zehar, Maria Pilar Amenabar eta Mikel Goenaga ere izan zituzten gogoan.

Ainhoa Aiertzak aurkeztu zuen ekitaldia, eta **Joxe Mari Olazabalen Bidea** sariaren zergatia gogoratuz ekin zion: "Olazabalek bere bizitza osoan beharra zutenen egindako borondatezko lana eta eskaintako dedikazioa, eredugarria izan da eta izango da andoaindarrontzat. Sari honen banaketa, berak egindako lanari segida emateko, eta, beharra duten herritarrei laguntza eskaintzen dieten elkarte eta pertsonen aitortza egiteko modu ezin hobea bihurtu da urtero".

Andoingo Caritas elkarteko idazkari den **Gregorio Olasagastik** Osasun Pastoraltzaren merezimenduak azaldu zituen, epaimahaiak hamasei proposamen jaso dituela gogoratu ostean. Taldeak berrogei urte darama herriko aiton-amonei laguntza eta babesa eskaintzen, 80 urtetik gorako pertsonen hain zuzen. Haiengandik oso gertu egoten dira taldeko boluntarioak, gizartearen babesa eskainiz hainbat arlotan: Andoingo zahar egoitzan edo Gipuzkoako ospitaletan daudenei bisitak eginez, eguneroko edozein gestio erraztuz, beren egun berezietan (urtebetetzeak, santu-izendegia...) gutunak bidaliz..., Olasagastik adierazi zuen amona eta aitona ugariri alaitasuna ekartzen dietela, eta elkartasuna oso presente daukan gizartea eraikitzen laguntzen dutela.

Merezimenduak entzun ostean, Osasun Pastoraltzako kideak oholtzara igo ziren. Lehenbizi, **June** eta **Xabat Miner** anai-arrebek aureskua dantzatu zieten, Olagain Txistularien Elkarteko kideek jarritako doinuren erritmora. Segidan, taldearen bultzatzaile nagusietako bat den **Ramon Truchuelok** eta **Iñaki Zabaleta** Andoingo San Martin Parrokiako erretoareak hartu zuten hitza. Truchuelok taldeak urtean zehar burutzen dituen ekin-tzak deskribatu eta gero, andoaindarrei taldeko boluntario izateko gonbidapena luzatu zien. Zabaleta erretoareak zorionak eman zizkien, egunero-egunero egiten duten lanagatik.

MARIA PILAR AMENABAR GOGOAN

Iazko azaroan hil zen **Maria Pilar Amenabar** Andoingo Caritas elkarteko eragile nabarmenetakoa. Pantailan argazkiak ikusiz batera, Gregorio Olasagastik Ma-



Aurtengoan Osasun Pastoraltza taldeak jaso du saria.

"Erretoretzeko bi etxebizitza bideratuko dira herrian behar handia duten familientzat"

Kontxi Elexe

ria Pilarren biografiako datu batzuk azaldu zituen. "Familia ugari batean jaio zen, eta Adunako Amundo baserrian bizitu zen haurtzaroan. Jesus Alaben ikastetxean ikasi ostean, 24 urte zituela Zumarragako Mesedetako Alaben Kongregazioan sartu zen. Horrela, Madrilen erizaintza ikasi, eta Hego eta Ertameriketan urte batzuk pasa zituen. Handik Madrilerara joan zen, pedagogia eta filosofia ikasketak egin zituen bertan. Baina behin ama gaixoturik, hona hurbildu zen, eta handik aurrera sendiari eskaini zion ardura eta maitasun guztia. Bera ezagutzeko zoria izan genuenok oso gogoan daukagu bere sakontasuna, apaltasuna, prestakuntza, enpatia, dedikazioa eta sentiberatasuna. Eredua izan da guztiontzat". Maria Pilarren ahizpa, biloba eta iloba igo ziren oholtzara, oroigarria

jasotzera. Hunkituta eta eskertuta agertu ziren.

SARIA HARRERA-ETXEKO BULTZATZAILEEI

Antolatzaileek, Andoainean iraganean nabarmendu diren pertsona edo elkarteei pergaminoa berezia banatzeko ohitura dute. Pergaminoa Andoingo Caritas elkartearen sortze akta jasotzen duen oroigarria da, berez. Aurtengoan, lau pertsona izendatu dituzte: **Luis Eskudero**, **Lurdes Imaz**, **Mikel Goenaga** apaiza eta **Rita Diaz**. Hilak dira azken biak, eta euren senideak igo ziren oholtzara. Izendatutako lau horiek, 80ko hamarkadan Sorabillako erretoarekin arazoak zeuzkaten gazteei begirako harrera-etxea sortu zuten. Aldi berean, aroztegi-tailerra antolatu zuten bertan, gazte horiek lanbide horretan treba zitezen eta lan merkatuan murgiltzea errazago eduki zezaten.

BI ETXEBIZITZA, BEHARTSUENENTZAT

Gipuzkoako Caritas elkartearen izenean **Kontxi Elexe** mintzatu zen. Elkarteari begirako autokritika egin ostean, lehenengo eta behin: "Orain arte, Donostia-

ko Caritas indartu nahian aritu gara, eta pixka bat ahaztuta utzi ditugu Gipuzkoako gainerako elizbarrutiak. Horrexegatik, deszentralizazio prozesuari ekin diogu; besteak beste, liberatuak jarriko ditugu bailaratan zuekin lan lagungarria egin dezaten".

Agerraldi berean beste ekimen baten berri eman zuen: "Erretoretzeko bi etxebizitza bideratuko dira herrian behar handia duten familientzat. Andoingo Caritas kideek erabakiko duzue nortzuk diren etxebizitza horietan bizitzeko baldintzak betetzen dituzten familiak".

MUSIKA ETA DANTZA

Hitzaldi eta oroigarri emate ugari izan zen ekitaldian zehar, eta musika eta dantza saioak tartekatuta ziren horien artean. **Alberto Agirre abesbatzak** bi kantu abestu zituen **Olagain** txistularien elkarteko kideekin batera; Andoingo Udal musikako eskolako klarinete taldeak pieza bat jo zuen; **Maite Oartzun** piano-jotzaileak **Mikel Goenaga** apaizaren omenez sortu duen pieza interpretatu zuen, eta azkenik, aureskua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Andoain *bizi!* '17

Abenduak 22, ostirala

18:00 Andoaingo Udal Musika Eskolako tailerreko ikasleen Gabonetako kontzertua Basteron.

Abenduak 23, larunbata

12:30 Soinuak musika eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua Basteron.

17:30 Olentzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak Etxeberrieta plazan, auzoko jai-batzordeak antolatua.

Abenduak 24, igandea

Olentzero eta Mari Domingiri harrera, Aita Larramendi Ikastolak antolatua:

17:30 Irteera Basteroko plazatik.

18:30 Etorrera Espigoian.

Abenduak 26-29

GAZTE ASTEA. Ekitaldi sorta herrigunean.

Abenduak 26-30

IKUSZIRKUS. 20:00 Bastero kulturgunean.

Abenduak 28, osteguna

11:00-14:00 / 16:00-20:00

Gabonetako Haur Parkea Allurralden.

Abenduak 29, ostirala

11:00-14:00 Haur Parkea Allurralden.

Abenduak 30, larunbata

11:30-13:30 Gaztaina erreak Juanita Alkain plazatxoan, Urkik antolatuta.

18:00-21:00 Bertso poteoa eta trikiritxa.

Abenduak 31, igandea

11:00-13:00 Kale animazioa txistulariekin.

11:30 San Silvestre lasterketa Zumea plazan.

12:00-13:30 Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko. Ibilbidea: Goikoplaza -Bastero-Kale Nagusia- Zumea Plaza-Larramendi kalea.

La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua.

00:45-04:00 Urtezar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

Urtarrilak 5, ostirala

Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua:

18:30 Zumea plaza. 19:30 Golkoplaza.

Salkinen Eguberrietako kanpaina:

Gabonetako 45 sorta irabazteko aukera. Parte hartzeko azken eguna.



ANDOAINGO UDALA

Laguntzaileak





Santomas eguneko ospakizuna, ostegun honetan

POSTONTZIA: INISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRA

Aurten, bederatzigarrenez, Urnietako Inistorra Euskaltzaleen Biltzarrak Santomas eguna antolatuko du abenduaren 21ean, arratsaldeko bost eta erdietan hasita (17:30), San Juan plazan. Ohiko duen bezala, ordu horretan zabalduko du txistorra eta sagardoa dastatzeko gunea, taloak eskaintzeko eta gaztainak erretzeko. Eta horixe izango da urnietarrek dastatu ahal izango dutena arratsaldean zehar: txistorra, gazta edo txokolatezko taloak, txistorra otartekoak, gaztain erreak... Gainera, behin sagartarta lehiaketa amaiturik, bertan aurkezturiko tarten anoak ere eskainiko zaizkie herritarrei. Usadiozko sagardogileen IX. Lehiaketa bestetik, urtero bezala Inistorra Biltzarrak Usadiozko Sagardogileen IX. Lehiaketa antolatuko du, non parte hartuko duten herriko baserri eta etxeetan eurentzat ekoiztako sagardoa egiten dutenek, ez, ordea, merkatura ateratzen duten sagardotegiak. Aurreko urteetan 10 eta 12 bitarte sagardogilek parte hartu du lehiaketa honetan eta aurten antzeko kopuruak egitea itzaroten dute antolatzailerek. Irabazleak, garaikurra eta Zaldundegi jatetxean bi laguntzako afaria irabaziko du. Bigarrenak eta hirugarrenak ere izango dute sari ekonomikorik.

VIII. SAGAR-TARTA LEHIAKETA
Usadiozko sagardogileen lehiaketarekin batera, sagartarta lehiaketa antolatuko da, horren berezitasuna izanik, etxean egindako tartak behar dutela izan, ogibidez gozogile ez direnek egindakoak. Sagar-tarta lehiaketan parte hartu nahi dutenek Santomas egunean bertan eraman behar dute, arratsaldeko bost eta erdietan (17:30) San Juan plazara, udaltxeko arkupera, bertan elkartuko baita epaimahaia. Irabazleak garaikurra eta Zaldundegi jatetxean bi la-

Santomas eguna abenduaren 21ean, 17:30ean hasita, San Juan plazan

gunentzako afaria irabaziko du; bigarrenak, berriz, sari ekonomikoa izango du.

GAZTAREN PISUA ETA SASKIA


Aipatu ditugun bi lehiaketa horiez gain, arratsalde osoan herritarrek aukera izango dute bi gazten pisua asmatzeko, antolatuko den lehiaren parte hartuz. Euro baten truke gazta esku artean haztatzeko aukera izango dute eta, ondoren, bere pisua adierazi beharko dute, ea nork asma.

Arratsalde osoan zehar bi gaztak plazan izango dira. Santomas egunaren aurreko aste osoan, berriz, bi gazta horiek plazako Kantoi tabernan eta Idiazabal kaleko Xauxar tabernan izango dira, gazta bana, eta hor ere pisua asmatzeko ahalegina egin ahal izango dute herritarrek.

Gainera, urtero bezala, 600 €-ko balioa duen saskia zozkatuko dute Inistorrakoez iluntzeko zortzi eta erdietan (20:30). Sasaki eder hori zozkatu aurretik, ordea, arratsaldean beste hiru zozketa txiki egingo dute, zazpitan (19:00), zazpi eta erdietan (19:30) eta zortzietan (20:00), eta hiru zozketa txiki horietan 50 euro inguruko sariak emango dituzte. Hiru zozketa txiki horietan parte hartzeko nahikoa izango da saskiaren zozketako zenbakia edukitzea; alegia, saskiaren zenbakiak lau zozketetan parte hartzeko balioko du.

SAGARDO IRABAZLEAREN ENKANTEA

Eta festa amaiera gisa, behin saskiaren zozketa egin, bi gaztek zein pisu duten azaldu eta usadiozko sagardogileen lehiaketako eta sagartarta lehiaketako sariak banatu ondoren, amaitzeko, sagardo irabazlearen botila baten enkantea egingo da, nork gehiago eman, hark eraman dezan Gabonetako otoruntzetan edateko.



HITZ-GEZIDUNAK

* Alemaniako hiriburua

			Legeen multzo	Frantziako hiria	Frantziako hiria
			Gogoko, kutun	Pl., uztaila	Emakume izena
			Lirain, segail		
			* IRUDIAN		
Gure garaiko gaitza	Pisu unitatea	Musika ikurra			
Gipuzkoako herria	Uxarrean, induskatzen	Amerikako estatua			
				Nor atzizkia	
				Marinelen zerrendak	
Ez on			Amildegi		
Jasankor			Begiaren beltzune		
					Nafarroako alderdi espainola
Diru-truk eskuratu				Zelai	
Eskainiz				Suari dario	
					Fosforoa
					Bokala
Bokal errepikatua		Noka, lieke			

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

		8						5
9					4	1		
	3	5	7					
	7			8	3			
1								8
				1	7			4
						9	2	1
		3	2					7
4						3		

5 X 5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

1	2	3	4	5
1				
2				
3				
4				
5				

1. Lehenik.
2. Edateko.
3. Bost bider bi.
4. Irakasleak euskalduntzeko programa.
5. Neurea.

GOITIK BEHERA

Goitik eta beheetik letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

1. Euskal Herriko herrialde bat.
2. Txegoste aparatuko errai.
3. Sosa.
4. Lerde.
5. Oinarrizko edaria.
6. Enborren mamia.
7. Kolore mota.
8. Ebaki sakona.
9. Zumaiako biztanle.

ERANTZUNAK

6	9	8	7	3	6	7	3	8	8
5	9	3	2	1	8	4	6	7	7
8	6	7	3	4	9	2	1	5	5
3	8	9	1	7	5	6	4	2	2
1	5	4	9	2	6	7	3	8	1
6	7	2	4	8	3	5	9	1	1
4	3	5	7	9	1	8	2	6	6
9	2	6	8	5	4	1	7	3	3
7	1	8	6	3	2	9	5	4	4

N	I	R	A	L	E
I	R	A	L	E	
H	A	M	A	R	I
E	D	A	R	I	
B	E	H	I	N	

Lapurti, Urdail, Dirna, Adur, Ura, Zura, Zuria, Zumaiar.

S	K	O	I	N	E	A	K	O	P	N
L	L	K	A	I	N	A	R	R	O	
L	E	G	A	L	L	A	R	R	O	
L	B	E	G	A	L	L	A	R	R	O
B	B	E	R	L	I	N	A	K	O	
G	U	R	B	I	L	L	A	R	R	O
U	S	T	X	A	R	A	M	A	N	K
U	S	E	R	O	S	I	N	K	A	E
E	S	K	A	A						

Ordezkaritza duten lau alderdi politikoaren agerraldi bateratua

Birziklapena areagotzeko konpromiso politikoa



Izagirre (EAJ-PNV), Mourinho (Irabazi), Ana Carrere alkatea, Jon Zulueta (EH Bildu) eta Olga Hernandez (PSE-EE).

Andoaingo **EH-Bilduk**, **EAJ-PNVk**, **Ganemos** eta **Irabazik** hondakinen birziklapenean sakontzeko akordioa lortu dute. Joan zen ostegunean egin zuten agerraldia, eta bertan **Ana Carrere** alkatea bozera maile lanetan aritu zen: “Andoainen prebentzio, murrizte eta birziklapenaren printzipioarekin bat egiten dugu, eta horretarako norbanakoek, eragile publikoek eta pribatuek elkarrekin urratsak emateko borondatea dugula adierazi nahi dugu”.

Sentsibilizazioa eta pedagogia mailan urratsak eman nahi dituzte, eta helburu horrekin “Gugandik hasita. Tú, yo, nosotr@s” ekimena abian jarri dute. Ekimen horrek mezu nagusi bat darama berarekin: “Gugandik hasita, norberak bere etxean, lantegian, hartutako erabaki txiki eta kontzienteekin, aldaketa nabarmena emateko moduan gara, gure eskura dagoelako”.

Helburu horretara iristeko, alderdi politikoek lau puntuz osatzen den akordioa adostu dute:

- “Hau sinatzen dugunok, bat egiten dugu hondakinen prebentzio, murrizte

eta birziklapenaren printzipioetan. Hondakinen kudeaketa eredu osasuntsu, ekologiko, ekonomiko eta arduratsu bat nahi dugulako Andoainerako, eta horretarako Udalari dagokion eskuduntzak garatuz”.

- “Andoaindarrekin eta herriko eragileekin batera, lan ildo eta ekintza ezberdinak eramango ditugu aurrera: alde batetik sentsibilizazio eta pedagogian urratsak emango dira, eta bestetik, birziklatze datuak hobetzeko neurriak hartuko dira. Gako hauek oinarrituta: organikoaren bilketa selektiborako edukiontzi marroien sustapena, sortzaile bereizien bilketa espezifikoak, birziklagarriak ez diren gaiak (errefusa) murriztuz, eta altzarien bilketa egokian arreta jarritz”.
- “Bide hau aurrera eramateko, Tolosako Mankomunitatearekin eta lurraldeko erakundeekin elkarlanean jardungo dugu, beharrezko laguntza logistikoa eta teknikoa jaso dezan”.
- “Herriko eragileekin ‘Gugandik hasita’ ekimena

abiaraziko du urrats hauek herritar guztien artean eman daitezen”.

Egun, %42an dago Andoaingo birziklapen tasa. 2015ean, %60ra iristea jarri zen helburu, eta bestela neurri zuzentzaileak ezartzea adostu. Hasierako helburuak ez dira betetzen ari, eta horrexegatik konpromiso eta neurri berriak iragarri dituzte.

PSE-EEK EZ DU AKORDIOAREKIN BAT EGIN

Alderdi sozialistak adierazi duenez, ondo ikusten du kontzientziazio eta sentsibilizazioaren alde iragarri den “Gugandik hasita” kanpaina. Dena den, ez zaio ondo iruditzen, besteak beste, edukiontzi berdea kentzea birziklapen tasa gehitzeko.

Edukiontzi hori soilik asteko zenbait egunetan ireki ahal izango da txartela erabiliz, eta oraingoz neurri hori Calonge, Sorabilla eta Olagain auzoetan ezarriko da.

PSE-EEren ustez, neurri inposatzaileak kaltegarriak dira birziklapenaren arloan; edukiontzi irekien aldeko apustu egitea dela egokiena.

Aurrera jarraitzen dugu!

POSTONTZIA: GANEMOS ANDOAIN IRABAZI

Pertsonak edota alderdi politikoak bide berrietan abiatzen garenean, zalan-tzak sortzen dira beti; baina helburua garbia denean, lainoa desagertu egiten da. Bide onean goaz, edukiontzi organikoaren erabiltzaileei Orde-nantza fiskalarako %15eko hobaria iaz egin genienean, PSOEek bere egin baitu aurtan. Oraingo honetan proposamena onartu izanak poztu egiten gaitu, baina guk pauso bat areago eman nahi dugu. Irailaren 25ean Ganemos eta Irabazi taldeen izenean eskaera egin genuen Zerbitzu batzordean (Ipar Haizea ekologisten plataformarekin bildu ondorenean), alderdi politiko guztiek txipdun edukiontzi grisa jartzearen alde elkarrekin lan egin genezan, birziklapen datuak hobetzeko neurri gisa. Apaltasun osoz eta gure aukeren baitan, oposizio erakitzailea egiten saiatzen gara, andoaindarren eguneroko bizimodua hobetzeko ideiak eskainiz.

Bi arrazoi nagusirengatik ez dugu gai horren inguruko moziorik aurkeztu. Batetik, lehen alderdia gara antzeko neurriak sustatzen (Bergaran EAJk edota Zumarragan PSOEek oso emaitza onekin egiten dute) eta aspaldian elkarte ekologista ugari Gipuzkoa mailan lanean ari da ‘zero zaborreko lurraldea lortu nahian. Esperientzia horiek ingurune garbiago nahiz osasungarriagoak izateko ikasgai onak dira gure ustez eta, era berean, zaborraren faktura herritarrentzat nabarmen murrizteko. Bigarrenik, badakigu (hasieran hanka-sartzeren bat egin bagenuen ere), aurrekontuekin edota informe tekniko eta juridikoekin lotutako Udaleko edozein ekintza dagokion batzordean lan-du behar dela lehenengo. Horixe gertatu zen gure (Ganemos, Irabazi eta atxiki gabeko zinegotzia, gobernu taldearekin batera), Stop Zurrumuruak programarekin bat egiteko proposamenarekin, eta EAJk, proposamena lehenik batzordean eztabaidatzeko eskatu zuen, arrazoi osoz. Huts egitea gizakiona baita eta huts-egina zuzentzen jakitea jakintsuena.

Tabernetan politikari guztiak berdina direla esaten dutenei, Ganemos taldeak herriko taldeei esleitutako diru-horniduratik udaletxeko diru-kutxara, 9160,22 euro itzuli dituela jakinarazi nahi diegu eta Irabazik, 2548 euro.

Podemos-Andoain-Ahal dugu zirkuluak (Ganemos taldeak aktiboki elkarlanean jarduten du), Udal proposamenak babestearekin batera, Foru Aldundiak autobus lineatan burutu nahi dituen murrizketen inguruan alegazio propioak ere aurkeztu ditu, Podemos alderdiko batzar-kide Patricia Geteren eskutik.

“Oposizio erakitzailea egiten saiatzen gara, andoaindarren eguneroko bizimodua hobetzeko ideiak eskainiz”

Ustelkeria kasuen kontrako fiskalak Gürtel kasuaren inguruan egin duen adierazpena irmoa izan da: “Guztiz eta nabarmen egiaztatuta geratu da PPren B kaxa”. Rato kasuaren, Lezo kasuaren edota, beste askoren artean, Palma Arena kasuaren berri judicial guztiak. PPko gobernuaren aldetik, Hezkuntza, Osasungintza edota Babes sozialeko inbertsioen murrizpena. Orainsu, azken sei urteotako preziorik altuenera iritsi da argiaren salneurria. Europako langabezia tasarik altuena duen bigarren herrialdea izaten jarraitzen du Espainiak.

Gai horiek guztiak hil edo biziko gaiak dira herritarrentzat, nahiz eta indarra galdu duten lurraldeko beste hainbat eztabaiden harira. Kataluniako gaia gai bakar bilakatu da, arduradun politikoek orain artean Konstituzioa begien aurrean jartzeko erabili baitute, haurrek gordeketetan jolasatu nahi dutenean eskuekin egiten duten bezala, errealtatea estali nahian.

Distantzia jartzea eta zalantzakokak izatea leporatzen digute, gure jarrera oso argia izan den bitartean; gauza bera defendatu dugu beti. Alderdiko kide batek dioen bezala: “Gatazka baten aurrean, demokrazia gehiago izaten da beti irtenbidea”. Autonomia estatutua kontuan hartzen ez duen alde bakarreko adierazpenari ezetz esaten diegu eta, era berean, Konstituzioaren 155. artikuluari ere ezezkoa ematen diegu, ez baitzaigu gustatzen. Alderdi konstituzionalistak aldatu ezin daitekeela esaten tematu dira, baina 135. artikulua aldatzeko bat etorri ziren arazorik gabe, ‘zorraren ordainak erabateko lehen-tasuna izan zezan’, hezkuntzaren, osasungintzaren eta menpekotasun legearen aurrean. Estatu plurinazionala garela uste dugu. Parte hartzen duten nazio guztiak errespetatuak eta onartuak sentituko diren zuzenbideko markoa lortu nahi dugu, baina hori inolaz ere ezin daiteke indarrez inposatu. Elkarriketaren alde egiten dugu, baita bermedun galdeketa itunduaren alde ere, bata bestea eraman duen zentzugabekeria egoera honi irtenbidea emateko. Zer proposatuko dute alderdi konstituzionalistek, alderdi independentistek oraingoa baino parlamentuko ordezkaritza hobe eskuratzen badute abenduaren 21eko hauteskundeetan? 155.a aplikatzen jarraitzeko asmoa al dute?

Gauzak beste era batera egin daitezkeela uste dugu. Nahi bada egin daiteke! Guk nahi dugu!

LAPURRETA BURDINA TALDEAREN BILTEGIAN

Burdina taldeak lapurreta berria jasan du, euren biltegia bertan. Ohar bidez adierazi dutenez, “joan zen irailaren 27an, lapurrek lokala erabat garbitu zuten. Sastra-

ka kentzeko hiru makina, bi motozerra eta motobonba bat eraman zituzten, besteak beste”.

Abenduaren 14an lokaleko atea berriro ere bortxatuta

topatu zuten, hiru hilabeteko epean bigarren lapurreta jasanez. Andoaingo Udalari lokal hobea eskatzeko aukera baliatu dute, prentsa ohar berran.



KIROL ALBISTEAK

Emakumezkoen futbola sustatzeko ekimena

Euskalduna futbol taldea berebiziko ahalegina egiten ari da Andoainen, emakumezkoen futbola sustatzeko bidean. Klubak denboraldi honetan bi talde di-

tu, infantil eta jubenil mailatan. Taldeei eutsi eta etorkizuna bermatzeko lanean ari dira. Horretarako, noski, futbolariak behar dituzte.

Erregional Ohorezko mailan jokatzen duen **Ruben Piron** entrenatzailearen agindupean ari dira infantil mailakoak. Jubeniletan, ostera, hamazazpi jokalarik jokatzen dute taldea, guztiak 15-17 urte bitartekoak dira. **Achraf Yerro** eta **Aritz Valdemoros** ari dira entrenatzaile lanetan.

Euskaldunako zuzendaritzako kideen ustez Andoaingo emakumeen artean futbola ez dago behar hainbeste zabalduta. Errealitateak erakusten dituen datuek halaxe diote: bai-larako beste klubetan gehiago dira jokatzen animatzen diren emakumeak, eta horrenbestez, talde gehiago osatzeko aukera daukate. "Tamalez, gaur egun, Andoaingo Eskola Kirola ekimenean neska gutxi parte hartzen dute".

Etorkizunari begira, infantil taldea ikusten dute larrien. Egun, taldeko infantilak diren zazpi neska hurrengo denboraldian kadeteak izango baitira, eta klubean ez dago maila horretan arituko den neskarik.

BITIK LAU TALDERA IGAROTZEKO ASMOA

Euskaldunak erabaki sendoa hartu du, emakumezkoen futbolaren alde. Orain dauden bi taldeez gain, beste bi eratu nahi ditu, katea osatuz: alebina (10-11 urte), infantilak (12-13 urte), kadeteak (14-15 urte) eta jubenilak (16-17-18 urte).

Egitura sendoa eraikitzeke, herriko hiru ikastetxeetako Eskola Kirola ekimeneko ardura-dunekin harremanak indartu dituzte, eta baita Gazte Lokala, Allurralde eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunaren sailarekin.

Bide horretatik, Gazte Lokalarekin batera, Eguberrietan futbolaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu.



Ruben Piron entrenatzailea, Lierni Telletxea eta Amets Vazquez jokalaria.

BI HITZORDU DATOZEN EGUNETAN

Abenduak 23, larunbata

10:30-13:00 Realeko emakumezkoen lehen taldeak Ubitarten entrenamendua egingo du. Herriko gazteek, eta bereziki neskek, Reala gertutik bizitzeko aukera izango dute.

Urtarrilak 3, asteazkena

10:30-13:00 Nesken futbolaren ate-ireki jardunaldia. Herriko eta eskualdeko 10-16 urte bitarteko neskei begira. Euskaldunako hiru teknikariren gidaritzapean: **Igor Beré** futbol eskolako koordinatzailea; **Ruben Piron** (infantil nesken mailako eta futbol eskolako lehen urteko alebina entrenatzailea eta **Achraf Yerro** jubenil nesken entrenatzailea.

INFANTILEN TALDEA INDARTSU, IKUSKIZUNA ESKAINIZ GAINERA

Ez daki zer den galtzea oraingo infantil taldeak: Ligako 8 partiduetatik 7 irabazi ditu, berdin du bestea. **Ruben Piron** entrenatzailea pozarren dago: "Futbola maite dut, bai jokatzea eta baita entrenatzea ere. Ezin zaie gehiago eskatu. Teknikoki ez dira nabarmen; bai, ordea, zelaian jartzen duten gogoatik; baloiarekin eta talde-jokoarekin gozatzera datoz".

Lierni Telletxeak eta **Amets Vazquezek** bertan jokatzen dute. Defentsa da lehena, taldearen atea eta atezaina ondo baino hobeto babesten dituen jokalaririk horietakoa; aurrelaria eta goletzailea bigarrena, 22 gol sartuta. Gol askoko neurketa politik jokatzen dituztela zehaztu dute. Lierni partidak ikustera bertaratzeko gonbitea luzatu nahi die herriko futbol-zaleei: "Mutilek baino ikuskizun handiagoa ematen dugu. Futbolzaleek, aurreritziak alde batera utzi, eta gu ikustera etorri beharko lukete; harritu egingo lirake, baita ondo pasatzea ere".


KADETE MAILAKO NESKAK ETORKIZUNAREKIN KEZKATUTA

Telletxeak eta Vazquezek infantil maila utzi, eta kadete mailara egin beharko dute jauzi hurrengo denboraldian, taldeko beste bost jokalarirekin batera. Kezka eragiten die etorkizunak, kadete mailako taldea osatzeko nahiko jokalaririk ez baitago Andoainen. Vazquezek ezin du egoera ulertu: "Baditugu lagunak eta ezagunak futboleko gogoz jokatuko luketenak; anima daitezten saiatzen gara, baina ez dago modurik, beldurra eta lotsa ematen die".

Lierni Telletxeak infantil taldearen adibidea jarri du: "gure taldean, oso gutxi jokatzen zutenekin zioten denboraldi hasieran, eta entrenamenduz entrenamendu hobetzen joan dira".

Biak datozen egunetako ekimenean iristeko gogoz daude. **Nahikari Garcia** urnietarra Lierni idoloa da; **Aintzane Encinas**, berriz, Ametsena da. Biak Ubitarteko zelaian entrenatzen ikusteko irrikitan daude, Realaren entrenamenduan.

Iraola eta Ezenarro bikain



Igandean Gipuzkoako Kross Txapelketarako baliogarri den bigarren lasterketa ospatu zen Ordi-ziako Oiangu baserriko zelaian. Bertan hainbat urnietarrek hartu zuten parte, tartean **Unai Iraolak** eta **Ander Ezenarrok**. Lokatza izan zen nagusi lasterketan, baina gustura jardun zuten korrika. Hurrengo lasterketa San Silbestretrekoa izango da, eta sasoi puntuari eusteko gogoz daudela azaldu dute.

Futbol emaitzak

Erregional preferentea

Mariño 0-2 Euskalduna

Orioko 7-2 Urnieta

Erregionala Mutilak

Mundarro 0-1 Euskalduna

Erregionala Neskak

Urnieta 2-0 Zarautz

Jubenil mutilak

Goierri Goierri-Urnieta

Mundarro 0-1 Euskalduna A

Euskalduna B 4-0 A. Berri B

Urnieta A 13-0 A. Berri A

Errege txapelketa

Leizaran eskubaloiko Errege txapelketa, datoren abenduaren 30ean Allurralden eta Arraten.

TEKNIFIKAZIOA

Allurralde kiroldegian, abenduaren 26an eta 27an LH 3 eta LH 4 mailakoentzat, 09:30etik 11:30era. Urtarrilaren 3an eta 5an LH 5-LH 6 mailakoentzat, 11:30etik 13:30era.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etbez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Olatz Lasa eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan), **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Udalak antolatuta, bakea eta bizikidetzaren hizpide Basteron

Bizikidetzaren ereduari erreparatzeko solasaldia

Bizikidetzaren inguruan herri-atar foro ezberdinen bizipenak ezagutzeko aukera izan zen Basteron, joan zen astearteko mahai-inguruan; Andoainen memoria eraikitze asmoz Udalak bultzatutako ekimena izan zen. Batik bat, Tolosako eta Lasarte-Oriako zenbait herri-atarrek sortutako foroak izan zituzten aztergai. Horretarako, Tolosatik **Arantxa Izagirre** eta **Joxe Agustin Arrieta** hurbildu ziren; Lasarte-Oriatik, berriz, **Rosa Bell Ausin** eta **Pello Sasiain**. Horiekin batera, bitartekari lanak egiten dituen **Olatz Pratek** osatu zuen hizlarien taldea. Baketik elkarteko **Inesa Ariztimuño** gidatu zuen mahai-ingurua.



Ariztimuño, Izagirre, Bell, Prat, Arrieta eta Sasian solaskide aritu ziren.

Aipatu bi herri horietako herri-atarrek euren foroaren hasie-

rik, ibilbidea, ekintzak..., azaldu zituzten, eta aurrera egiteko premi-premiazkoak diren zenbait ezaugarri aipatu zituzten: joera politiko anitzeko jendea bilduko duen taldea izatea, enpatia, pazientzia, entzuten jakitea, bestearentzat

hitz mingarriak izan daitezkeenak baztertzeko jakitea...

Entzuleei eskainitako parte hartzeko txandan, galdera eta iritzi interesgarriak entzun ziren. Urtarrilaren 16an, asteartearrekin, jarri dute hurrengo hitzordua.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Abenduaren 18an **Martxeli** Gorritik 90 urte beteko zituen. Muxuasko etxekoan partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Aroa etxeko printzesari. 7 urtez gure egunerokoa alaitzen. Maite zaitugu. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Elenek 10 urte abenduaren 23an. Zeinen azkar pasa den denbora! Aita, ama eta Maddi.

URNIETA


ZORIONAK



Junek urtea bete zuen hilaren 6an, ederki ospatu ere **Maddi** ahizparekin. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Laster abenduaren 30a! Aurten bat zenbakia aurrean duen azkena izango da **Nereu**rentzat! Muxuak etxeko txikiaren.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urtearen azken egunean badugu zer ospatu!! Brindis bat herriko saltse- roenaren omenez!! Biba zu, **Xabier**!!

ANDOAIN

ZORIONAK



Hodei Rabadan Larreak gure etxeko txiki urtea beteko du urtarrilaren 5an. Mila muxu etxeko guztien partetik!

ANDOAIN

ZORIONAK



Urtarrilaren 4an **Maialen** urteak beteko ditu. Ea urte berriak erronkak eta ametsak betetzen laguntzen dizun. Etxekoak.

ANDOAIN



ZORION AGURRAK AIURRIN:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus | 619 163 537.

IKUSBERA

HAUR ALDIZKARIA

Aiurriekin batera.

Harpidedun izatearen abantailak



SANTOMAS EGUNA NEGUKO LURRUNA!



U R N I E T A N

**Abenduaren
21** ean,
ostegunarekin
**Arratsaldeko
17:30ean**
San Juan plazan



Antolatzaile:



INISTORRA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA
IÑISTORRA URNIETAKO EUSKALTZALEEN BILTZARRA



95 urte

akintzaz bete

Babesle:



Urnieta
udala

Laguntzaile:



KANTOI
taberna



XAUXAR
TABERNA • URNIETA

- Txistorra, ardoa, sagardoa
- IX. Usadiozko sagardogileen lehiaketa
- VIII. Sagar-tarta lehiaketa eta dastaketa
- Gazten pisua asmatzea (Kantoi eta Xauxar tabernetan astebete aurretik hasita)
- Sagardo irabazlearen enkantea
- SASKIAREN ZOZKETA (20:30)
- Hiru zozketa txiki saskiaren zenbakiarekin

1 sari ezkutua 19:00
2 sari ezkutua 19:30
3 sari ezkutua 20:00

